

URTEKO HERRI BIZITZAZ




TXOTX BERRI

Aurtengoan Goiko-plazara pasa dira Txotx berri festaren ekitaldi nagusienak. Urtarrilaren 20an, San Sebastian egunez, sagardozaileek bertara ekarri zituzten beren sagardo-botilak. Baserriko tresnak, animaliak... erakusketa aberatsa izan zen plazan. Aldi berean, Donostialdeko IV. Ezti-lehiaketa eta dastaketa ere bertan izan genuen.

IÑUDE ETA ARTZAIK

Ihauteriak alaitu dizkigute aurtengoan iñude eta artzainek Astigarragan. Otsailaren 10ean astigarragatar ugari mozorrotu eta Foruen Plazatik aterata bira eman zuten herrian zehar. Dantza desberdinak tartekatu zituzten beren ibilbidean: zortzikoa, fandango eta arin-arina eta bukaera emateko ohikoa den antzezpena.



LAROGEI URTETIK GORAKOENTZAKO OMENALDIA

Urtero bezala, Gure Izarra eta Astigar elkartearen eskutik, Astigarragako larogei urtez gorako aitona-amoniei omenaldia egin zitzaion. Meza, Aitzondoren kantak, Astigar dantza taldearen emanaldia..... Bazkariarekin bukatu zuten festa. Bejondeiela !